

# Hizkuntza- eta ikaste-nahasmenduak dituzten haur elebidunekin eskuhartzeko ereduak, hezkuntzan eta gizarte-osasun mailan



**Ira. 16 - Ira. 17 2022**

**Kod. 021-22**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2022

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Ira. 16 - Ira. 17 2022

**Kokalekua**

Lesakako Harriondoa Kultur Etxea

**Hizkuntzak**

Euskara Gaztelera

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Antolakuntza Batzordea**





## Azalpena

Ikastaroa dibulgaziorako jarduera da, baina baita formakuntzako ere. Helburua, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuetako profesionalak familiekin eta hainbat erakundetako ikertzaileekin harremanetan jartzea du helburu, esperientziak partekatu eta trukatzeko, orokorrean, hizkuntza eta komunikazio-nahasmenduen artatzean aurreratzen lagunduko duelakoan, eta zehazki, testuinguru elebidun eta eleaniztunetan.

Hizkuntza nahasmenduen gaineko ikastaroen zortzigarren aldi honetan eskola garaian (lehen hezkuntzan, nagusiki) jarri da arreta, hizkuntza-garapeneko nahasmenduak baldintzatu edota gainjarri egiten baitzaizkie haurrek dituzten askotariko ikasteko arazoei.

Euskara etxean, eskolan eta gizartean presente dagoen hiru lurralde administratiboetako esperientziak izango dira hizgai, Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Iparraldean bere esparruko erreferentzia diren eta eskarmentu frogatua duten profesionalek azalduta. Esperientzia hauei Madrileko eta Mexikoko adituenak ere gehituko zaizkie.

Aurten esperientzia praktikoetan gehiago aritzeko aukera izango da. Asmo horrekin gehitu da bi egunen amaieran "galderak adituari" egiteko aukera emango duten mahai inguru bana. Saio horietan antolatzaileek zein entzuleek galdera praktikoak egingo dizkiete mahaikideei.

## Helburuak

Hizkuntza- eta ikaste-nahasmenduen antzemate, ebaluatze eta ondorengo esku-hartzeak hobetzeko baliabideak jartzea.

Hizkuntza-arazoak dituzten haurren ikasketa prozesua errazteko eskolan erabili ohi diren esku-hartzeko baliabide eta prozedurak hobetzen lagun dezaketen ideiak jasotzea.

Familiek dituzten eskarmentua eta baliabideen berri jasotzea.

Familian eta maila sozio-sanitarioko esku-hartzea hobetzeko ekarpenak jasotzea.

Arao zehatz hauei aurre egiteko dauden baliabide sozio-sanitarioen berri izan eta baloratzea.

## Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak

Ayuntamiento de  
Lesaka

Centro de salud de Lesaka

Mancomunidad del euskera de  
Bortziriak

ELEBILAB (UPV/EHU)

Asociacion Guztiok  
Bortziriak





## Programa

2022-09-16

15:45 - 16:00 Erregistroa / Registro

---

16:00 - 16:15 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Presentación / Aurkezpena

**Belen Compains Beaumont** | Osasunbidea - Pediatra

**María José Ezeizabarrena Seguro** | ELEBILAB - UPV/EHU - Irakasle ikertzailea

---

16:15 - 17:00

“Distintas respuestas en el sistema educativo de Navarra para el alumnado con diversidad funcional en contextos plurilingües (Comunicación en español con traducción al euskera) - Testuinguru eleanizetan dibertsitate funtzionala duten ikasleei Nafarroako hezkuntza-sistemak ematen dizkien erantzunak (Hitzaldia gaztelaniaz eta euskararako itzulpena)”

**M<sup>a</sup> José Cortés Itarte** | Departamento Educación, Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saila - Directora de Servicio de Inclusión, Igualdad y Convivencia / Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetz Zerbitziburua

---

17:00 - 18:15

“Inklusio esperientzia arrakastatsuak Nafarroan, EAEn eta Iparraldean - Panel de experiencias inclusivas que funcionan en Navarra, CAV y Aquitania”

Keinu bat, hamaika desio (Hitzaldia euskaraz eta gaztelaniarako itzulpena) - Un gesto, miles de deseos (Comunicación en euskera con traducción al español)

**Alvaro Garde Lournaga** | Instituto Toki Ona, / Toki Ona Institutua - Profesor especializado en Pedagogía Terapéutica / Pedagogía Terapeutikoko Irakaslea

Aho-hizkuntzaren lanketa sistematikoa haur-hezkuntzan: irakurketa eta idazketa prozesuaren hastapenerako oinarria (Hitzaldia euskaraz eta gaztelaniarako itzulpena) - Tratamiento sistemático del lenguaje oral en la educación infantil: bases para la iniciación del proceso de lecto-escritura (Comunicación en euskera con traducción al español)

**Judit Abal Vallina** | Maestra Isabel Gallego Gorria eta Deustuko Ikastola

**Amaia Amilibia Gabiola** | CEP Zabalarra Eskola, Durango - Profesora especializada en Audición y Lenguaje / Entzumena eta hizkuntzako irakaslea

Inklusio esperientzia arrakastatsuak Iparraldean (Hitzaldia euskaraz eta gaztelaniarako itzulpena) - Experiencias inclusivas exitosas en Iparralde (Comunicación en euskera con traducción al español)

**Maiena Etcheverry** | Integrazio Batzordea Elkartea - Coordinadora de la Asociación y Asesora / Elkarteko koordinatzaile eta Aholkulari

**Sarioa Galarraga** | Seaska - Asesora en proyectos para el alumnado con necesidades específicas / Aholkulari, behar bereziak dituzten ikasleen proiektuetan

---

18:15 - 18:45 Atsedena

---

18:45 - 20:00 Mahai ingurua: “Galderak adituari egokitze kurrikularrari buruz (Mahai ingurua

euskaraz eta gaztelaniarako itzulpena) - Preguntas al experto sobre la adaptación curricular (Mesa redonda en euskera con traducción al español)“

**Maria José Ezeizabarrena Seguro** | ELEBILAB - UPV/EHU - Profesora investigadora / Irakasle ikertzailea (Moderatzailea)

**Iñaki Martínez Urmeneta** | CREENA, Centro de Recursos de Educación Especial de Navarra - Director / Zuzendaria

**Javier Azpitarte Ariño** | Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco - Responsable de Educación infantil y Educación Primaria / Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Arduraduna

**Saroia Galarraga** | Seaska - Asesora en proyectos para el alumnado con necesidades específicas / Aholkulari, behar bereziak dituzten ikasleen proiektuetan

---

## 2022-09-17

09:00 - 09:45

“Los trastornos del neurodesarrollo desde la neuropsicología (Comunicación en español, con traducción al euskera) - Neurogarapeneko nahasmenduak, neuropsikologiaren ikuspegitik (Hitzaldia gaztelaniaz eta euskararako itzulpena)“

**Lucía Zumarraga Astorqui** | Neuroped - Neuropsicóloga y directora del proyecto / Neuropsicóloga eta Ikerketaburua

---

09:45 - 10:30

“El Logopeda: profesional de referencia en los trastornos del neurodesarrollo (Comunicación en español, con traducción al euskera) - Logopeda, erreferentziatzeko profesionala, garapen neurologikoetako nahasmenduetan (Hitzaldia gaztelaniaz eta euskararako itzulpena)“

**Balbino Rojo Colino** | Centro de Servicios logopédicos

---

10:30 - 11:00

“Haur euskaldunen hizkuntza arazoak antzemateko testa (4-8 urte) (Hitzaldia euskaraz eta gaztelaniarako itzulpena) - Test para la detección de trastornos del lenguaje en niños y niñas euskaldunes (4-8 años) (Comunicación en euskera, con traducción al español)“

**Marie Pourquoié Bidegain** | IKER - CNRS - Neuropsicolingüista e investigadora / Neuropsikologoa eta Ikertzailea

**Maria José Ezeizabarrena Seguro** | UPV/EHU - Profesora investigadora y Directora de ELEBILAB / Irakasle ikertzailea eta ELEBILABeko Zuzendaria

---

11:00 - 11:30

Atsedena

---

11:30 - 12:30

“Un programa de apoyo a las familias de niños con trastornos del lenguaje. Experiencia en México (VIDEO en español, con traducción al euskera) - Hizkuntza - nahasmenduak dituzten haurren familientzako sostengu-programa bat. Mexikoko esperientzia (Gaztelaniazko BIDEOA euskaratuta)“

**Silvia Romero Contreras** | Universidad de San Luis de Potosí, Mexico - Investigadora

---

12:30 - 14:00

Mahai ingurua: “Sesión de preguntas al Experto en el ámbito sanitario y socio-sanitario - Galderak adituari osasun esparruaren eta esparru sozio-sanitarioaren inguruan“

**Belen Compains Beaumont** | Centro de Salud de Lesaka - Pediatra (Moderatzailea)

**Lucía Zumarraga Astorqui** | Neuroped - Neuropsicóloga y directora del proyecto /



Neuropsicologia eta Ikerketaburua

**Balbino Rojo Colino** | Centro de Servicios logopédicos

**Alicia Solavera Sánchez** | Asociación TEL Euskadi - Presidenta / Lehendakaria

---

## Zuzendariak



### **Belen Compains Beaumont**

Centro de Salud de Lesaka

---

Nafarroako Unibertsitatean medikuntzan lizenziatua. Nafarroako Hospitalean pediatria espzializazioa. 1990 geroztik Lehen Mailako Arretako mediku bezala lan egiten dut, lehengo hirurak Iruñeko Udalaren mediku gisako lanarekin konpatibilizatuta. 1993 geroztik Lesakako Osasun Zentroko pediatria. Desagertutako Bortzirietako ELAIAko (Equipo Local de Atención a la Infancia y Adolescencia) bazkide sortzailea. Nafarroako Arreta Goiztiarraren Elkartearen sortzaile eta lehen Lehendakaria. Nafarroako pediatria elkartearen haur garapenaren taldekidea. Oraingo Haur Garapenaren eta ohiko Arreta Goiztiarraren NAUPeko irakasle laguntzailea. Ur terapia eta neurorehabilitazioari buruzko Lesakako ikastaroen zuzendaria. 2017.ko bi ikastaroetan hizlaria. Arreta goiztiarraren azken hiru kongresuetan gutxienez eta Nafarroako pediatira elkartean komunikazioak aurkeztu ditut, beti haur garapena eta Arrta Goiztiarrarekin lotuta. Une honetan hiru ikerketa proiektuetan parte hartzen ari naiz.



### **Maria José Ezeizabarrena Seguro**

Letren Fakultatea - ELEBILAB (UPV/EHU)

---

Euskal Filologia Litzentziaduna (UPV/EHU) eta Hizkuntzalaritzan Doktore (U. Hamburg). Irakasle eta ikertzaile Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak sailean eta ELEBILAB Ikertaldearen zuzendaria (UPV/EHU). Ikerketa gaiak: elebitasun goiztiarra; haurren keinuak, hiztegia, gramatika eta fonologia; hizkuntzaren erabilera hizkuntza-ukipen egoeratan eta baita hizkuntza-garapena hizkuntza-nahasmenduak dituzten haurrengan ere.

## Irakasleak



### **Judit Abal Vallina**

Hezkuntza Saila

---

18 irakaskuntzan lanean 7 urte HH, LH eta 11 urte Entzumena eta Mintzaira irakasle bezala



### **Amaia Amilibia Gabiola**

---

Pedagogian lizentziatua (EHU 1999). Entzumena eta hizkuntzako irakaslea (Salamancako unibetsitatea 2001). Ahotsaren patologietan aditua (Alcaláko unibertsitatea 2014). 21 urte daramatzat Entzumena eta hizkuntzako irakasle moduan. Gaur egun Durangoko Zabalarra eskola publikoan eta Iurretako Maiztegi eskola publikoan egiten dut lan.



### **Javier Azpitarte Ariño**

---





**M<sup>a</sup> José Cortés Itarte**

---

M<sup>a</sup> José Cortés Itarte Nafarroako Gobernuko Inklusio, berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuaren Zuzendaria da 2019tik.



**Maiena Etcheverry**

Integrazio Batzordea Elkartea, Elkarteko koordinatzaile eta aholkulari

---



**Saroia Galarraga**

---

Saroia Galarragak Seaskan egiten du lan, aholkulari bezala, behar bereziak dituzten ikasleen proiektuetan.



## Alvaro Garde Lurnaga

---

Alvaro Garde Lurnagak Pedagogia Terapeutikoko ikasketak 2017an amaitu zituen (NUP). Lehen Hezkuntzan bi urtez aritu ondoren, Berako Toki Ona Institutuan aritu zen eta Larraintzarren (Nafarroa) dihardu 2022-23 ikasturtean.



## Iñaki Martínez Urmeneta

CREENA

---

Nafar Gobernuako hezkuntza orientatzaile 1993 geroztik. CREENAKo aholkularia 2000-2009 bitartean. Nafar Gobernuako Ikerketa Linguistikoaren bekaduna honako lanarekin: "Hizkuntza murgiltze prozesuan dauden HPBko ikasleen jarraipena" 2006. NAUPeko Magisteritza eskolako irakaslea 2010-2014. Bizikidetza aholkularia 2017-2019. CREENAKo zuzendaria 2019ko iraila ezkerotik.



## Marie Pourquié Bidegain

IKER

---

(Baiona, Lapurdi, 1982) Neuropsikohizkuntzalaria da. Euskal Filologiako lizentziatura (Baionan eta Gasteizen) eta Hizkuntzaren Zientziak lizentziatura eta Masterra (Parisen) egin zituen. Gero, neuropsikohizkuntzalaritzan eta afasiologian espezializatu zen, ikerketa-masterra eta doktoretza eginda Le Mirail Unibertsitatean (Tolosa, Frantzia, 2011an). Ondotik, doktoretza-ondokoa egin zuen Montrealeko ortofonia-eskolan, Donostiako BCBL eta Baionako IKER ikerketa-zentroetan. Hizkuntzalaritza klinikoan eta psikohizkuntzalaritza aplikatuan dihardu euskaldun eta eleanizdunengan hizkuntza arazoak hautemateko tresnak garatzen Euskal Herriko, Europako eta Europaz kanpoko diziplinarteko taldeetan.



## **Balbino Rojo Colino**

---

Magisteritzako Diplomaduna, Hizkuntaren Psikopatologia eta entzumena Graduondoa (U. Comillas, Madril). Terapia Miofuncionaleko graduondoa. Arreta Goiztiarreko Aditua. Haur psikologiako masterduna. Garapen Nahasmendu Orokorra eta haurren autismoan aditua. Masterduna Garapen Nahasmendu Orokorra duten haurren psikohezkuntzako eskuhartzean eta haurren autismoan. Zuzendaria eta terapeuta Servicios Logopedicos y Atención Temprana zentroan. Igualatorio Médico Quirúrgicoko mediku zerbitzuko kide. Irakasleen ahotseko lan arriskuak aurreikusteko teknikaria, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako Mediku zerbitzuan. Barakaldoko Santa Teresa Vitálitás eta Bilboko Sarrikoko Egoitzetako mediku zerbitzuko kidea. Parkinson Nervion - Ibaizabal elkarteko Terapeuta. Logopediako profesionalentzako zenbait logopedia-master eta espezializazio ikastarotako zenbait irakasgaitako irakaslea. Hizlaria logopedia-gaietako hainbat biltzar eta foruetan. El pueblo que se quedó sin voz; La voz en el docente, cómo cuidar nuestra herramienta de trabajo eta Manual de intervención logopédica en la enfermedad de Parkinson liburuen eta hainbat artikuluren egile.



## **Silvia Romero Contreras**

---

Silvia Romero Contreras Doktorea da Hezkuntzan (U. Harvard). Irakasle-ikertzailea da 2004tik Mexikoko San Luis Potosiko Unibertsitate Autonomoko Psikologia Fakultatean. Fakultate horretan sortu zuen Psikopedagogiako lizentziatura programa, hizkuntzan eta matematiketan enfasia jartzen duena, eta arduraduna da Lab Lit, Catherine E. Snow izeneko laborategiarena. Ikertzaile nazionala da, II mailakoa, eta Cuerpo Académico consolidado Evaluación e Intervención en Psicología y Educación delakoaren buru. Psikologia Fakultateko Idazkari orokorra da 2022tik.



## **Alicia Solavera Sánchez**

---



Alicia Solavera Sánchez, TEL-EUSKADI elkarteko lehendakaria da. Beste 8 familiekin batera Asociación de Familias y Amigos de Personas con Trastorno Específico del Lenguaje TEL-EUSKADI elkartea sortu zuen 2013an. Orduz geroztik dihardu lehendakari lanetan, aldi berean neurogarapeneko nahasmendu honetan zein beste batzuetan formatzen, TEL/TDL (euskaraz AHAE/HGN) nahasmendua dutenen kolektiboaren beharrak erakundeen aurrean aldarrikatzeko eta familiak, hezitzaileak eta nahasmenduarekin interesatutakoak orientatzeko.



### **Lucia Zumarraga Astorqui**

Neuropsicóloga

---

Haurren neuropsikologo klinikoa, NeuroPed-eko zuzendaria eta (2013). NeuroPed neurogarapen pediatrikoko zentru pribatua da, haurrak zein gazteak artatzen dituena, jaiotzatik helduarorako ibilbidean (0-21 urte). Neuro-errehabilitazioaren printzipioak eta ebidentzian zein neurozientziaren eta neuroplastizitatearen ekarpenetan oinarritutako medikuntzarenak jarraitzen dituen tratamendua eskaintzen du. Diziplina-arteko taldea zuzentzen du, ikuspegi bateratu eta helburu bakarra dituena: haurraren eta familiaren bizitza-kalitatea hobetzea eta haurraren gizarteratzea ahalik eta gehien erraztea. UCMko Neurozientzia Programan egin zituen ikasketak eta han lortu zuen aurreratutako ikasketen agiria. Instituto Guttman-en Neuroerrehabilitazio-masterduna da (Universidad Autónoma de Barcelona). Instituto Guttman-eko Neuropsicología eta ikerketa sailean ari 2007-2011 bitartean, ikerketa-laguntzaile bezala Estatu eta Europa mailako ikerketa-projektuetan. Nabarmentzekoa da errehabilitazio-plataformaren diseinuan izandako parte-hartzea.



## Matrikula prezioak

<b>AURREZ AURRE</b>	<b>2022-09-16 ARTE</b>
Orokorra	80,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	68,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	56,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza</a>	68,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua</a>	68,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	68,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide</a>	68,00 EUR
<a href="#">Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa</a>	20,00 EUR
<a href="#">Gipuzkoa / Bizkaia eta Arabako Psikologoek Elkargo Ofiziala</a>	68,00 EUR
<b>OSAKIDETZAKO GONBIDATUAK</b>	0 EUR

<b>ONLINE ZUZENEAN</b>	<b>2022-09-16 ARTE</b>
Orokorra	80,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	68,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	56,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza</a>	68,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua</a>	68,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	68,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide</a>	68,00 EUR
<a href="#">Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa</a>	20,00 EUR



**ONLINE ZUZENEAN**

**2022-09-16 ARTE**

---

[Gipuzkoa / Bizkaia eta Arabako Psikologoek Elkargo Ofiziala](#)

68,00 EUR

---

[OSAKIDETZAKO GONBIDATUAK](#)

0 EUR

---



## **Kokalekua**

### **Lesakako Harriondoa Kultur Etxea**

Komentu Kalea 1. Lesaka

Nafarroa